

EUSKO JAURLARITZA

Gipuzkoako Industria, Trantsizio Energetiko eta
Jasangarritasuneko Lurralde Ordezkaritza

Jakinarazten dizut Alkateak, 2025eko abenduaren 19an honako Dekretu hau eman duela:

“PA.V.M. jaunak, “Arena Power Solar 9 SLU” enpresaren izenean (IFZ: B-90437294) Goimendi auzoan kokatzen den eremuan “Pe Cote 26” izeneko proiektu eolikoaren hirigintza-bateragarritasunaren txostena eskatu zuen (0402/24 esp. – 2024HIKO0025).

2024ko azaroaren 21eko Alkate Dekretuaren bidez hau erabaki zen:

“1.- Udal arkitektoaren txostena ontzat ematea eta, horrenbestez, erantzun gisa PA.V.M. jaunari, “Arena Power Solar 9 SLU” enpresaren izenean, jakinaraztea.

2.- Erantzuna jakinaraztea (udal arkitektoaren txostenarekin batera) PA.V.M. jaunari, “Arena Power Solar 9 SLU” enpresaren izenean.”

2025eko urriaren 17an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko jarduneko Gipuzkoako lurralde-ordezkararen iragarkia argitaratu zen; iragarki horren bidez, jendaurrean jarri ziren Eibar, Soraluze-Placencia de las Armas, Bergara, Elgeta eta Elgoibarko udalerrietan (Gipuzkoa) «Basalgo Parke Eolikoa 28,00 MW eta bere ebakuazio-azpiegitura komunak» proiektuaren aurretiazko administrazio-baimenaren eta ingurumen-inpaktuaren adierazpenaren eskaerak; bertan, 30 egun balioduneko epea ezarri zen alegazioak aurkezteko, hau da, 2025eko azaroaren 28ra arte.

Bergarako Udalak, 2025eko urriaren 24an, jendaurreko izapidearen barruan, alegazioak aurkezteko epea luzatzeko eskatu zion Gipuzkoako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Lurralde Ordezkaritzari.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Saileko Gipuzkoako lurralde-ordezkararen 2025eko azaroaren 20ko ebazpenaren bidez erabaki zen Eibar, Soraluze-Placencia de las Armas, Bergara, Elgeta eta Elgoibarko (Gipuzkoa) udalerrietan «Basalgo Parke Eolikoa 28,00 MW eta bere ebakuazio-azpiegitura komunak» proiektuaren administrazio-baimena eta ingurumen-ebaluazioa emateko jendaurrean jartzeko izapideari dagozkion alegazioak aurkezteko epea abenduaren 22ra arte luzatzea. Espediente-zk.: 20-GE-Y-2024-00007 (2025eko azaroaren 28ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua).

Bergarako Udalak "Kimar Consultores Ambientales SL" enpresaren zerbitzuak kontratatu ditu aholkularitza teknikoa emateko.

Bergarako Udalak "Avifauna" txostena eskatu dio Lurralde Oreka Berdearen Departamentuari, jendaurrean jarritako dokumentua behar bezala aztertzeke judizio-elementu gehiago izan ditzan.

Bai "Kimar Consultores Ambientales SL" enpresak egindako txosten teknikoak, bai idazten ari den "Avifauna" txostenari buruzko informazioa kontuan hartuta, Hirigintza eta Ingurumen Zerbitzuko burua den udal-arkitektoak dagokion txosten teknikoa egin du.

Hirigintza eta Ingurumen Zerbitzuko burua den udal arkitektoaren txostenari jarraituz,

ERABAKI DUT:

LEHENENGOA: Hirigintza eta Ingurumen Zerbitzuko burua den udal-arkitektoaren txostena – dagozkion eranskinekin– onartzea eta berau alegazio gisa bidaltzea «Parque Eólico Basalgo 28,00 MW eta bere ebakuazio-azpiegitura komunak» proiektura.

BIGARRENA: Ingurumen-inpaktuari buruzko Adierazpena kontrakoa izan dadila eskatzea eta, beraz, proiektu honi Aurreko Administrazio-baimenik ez ematea, txosten honetan eta erantsitako dokumentuan adierazitakoagatik.

HIRUGARRENA: Bergarako Udala alderdi interesdun gisa hartzeko eskatzea, gai honetan aipatutako proiektuari buruzko administrazio-ebazpenaren ondorioetarako.

LAUGARRENA: Ingurumenaren arloan informazioa eskuratzeko eskubidea erabiliz, indarrean dagoen araudian aurreikusitakoaren arabera, Bergarako Udalari, alderdi interesatu gisa, informazio publikoaren fase honen ondoren sar daitezkeen dokumentu eta txosten berri guztien eta jasotako alegazioen kopia bidaltzeko eskatzea.

BOSGARRENA: Erabaki hau Gipuzkoako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Lurralde Ordezkaritzari jakinaraztea (Hirigintza eta Ingurumen Zerbitzuko buru den udal-arkitektoaren txosten onartuarekin –eta dagozkion eranskinekin–).”

Bergara, 2025eko abenduaren 19a

IDAZKARIA

ESKU00c8b6e6-5d9a-4bd7-9e76-02a760e0698d

Le comunico que el Alcalde ha emitido el 19 de diciembre de 2025 el siguiente Decreto:

“Don PA.V.M., en representación de la empresa “Arena Power Solar 9 SLU” (NIF: B-90437294), solicitó informe de compatibilidad urbanística del proyecto eólico denominado “Pe Cote 26” sito en el barrio de Goimendi (exp. 0402/24 – 2024HIKO0025-).

El Alcalde mediante Decreto de 21 de noviembre de 2024 resolvió:

“1.- Aprobar el informe de la arquitecta municipal y, en consecuencia, comunicárselo como respuesta a don PA.V.M., en representación de la empresa “Arena Power Solar 9 SLU”.

2.- Dar traslado de la respuesta a don PA.V.M., en representación de la empresa “Arena Power Solar 9 SLU” (junto con el informe de la arquitecta municipal).”

Con fecha 17 de octubre de 2025 se publicó en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el Anuncio del Delegado Territorial de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad de Gipuzkoa en funciones, por el que se someten a Información Pública las solicitudes de Autorización Administrativa Previa y Declaración de Impacto Ambiental del proyecto «Parque Eólico Basalgo 28,00 MW y sus infraestructuras comunes de evacuación», en los términos municipales de Eibar, Soraluze-Placencia de las Armas, Bergara, Elgeta y Elgoibar (Gipuzkoa), en el que se establecía un plazo de 30 días hábiles para la presentación de alegaciones; esto es, hasta el 28 de noviembre de 2025.

El Ayuntamiento de Bergara el 24 de octubre de 2025 solicitó a la Delegación Territorial de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad de Gipuzkoa la ampliación del plazo de presentación de alegaciones dentro del trámite de información pública.

Mediante resolución de 20 de noviembre de 2025 del Delegado Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad, se acuerda la ampliación del plazo de presentación de alegaciones correspondiente al trámite de información pública para la autorización administrativa y evaluación ambiental del proyecto: «Parque Eólico Basalgo 28,00 MW y sus infraestructuras comunes de evacuación», en los términos municipales de Eibar, Soraluze-Placencia de las Armas, Bergara, Elgeta y Elgoibar (Gipuzkoa), hasta el próximo día 22 de diciembre. Expediente nº: 20-GE-Y-2024-00007 (publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 28 de noviembre de 2025).

El Ayuntamiento de Bergara ha contratado los servicios de asesoramiento técnico a la empresa “Kimar Consultores Ambientales SL”.

El Ayuntamiento de Bergara ha solicitado al Departamento de Equilibrio Territorial Verde el informe “Avifauna”, al objeto de tener más elementos de juicio para el correcto estudio del documento sometido a exposición pública.

Considerando, los informes técnicos realizados por la empresa “Kimar Consultores Ambientales SL” y la información referida al informe “Avifauna”, que está en redacción, la arquitecta municipal jefa del servicio de urbanismo y medio ambiente ha emitido el correspondiente informe técnico.

De conformidad con el informe de la arquitecta municipal jefa del servicio de urbanismo y medio ambiente,

HE RESUELTO:

PRIMERO: Aprobar el informe de la arquitecta municipal jefa del servicio de urbanismo y medio ambiente -con sus correspondientes anejos- y remitir el mismo como alegación al proyecto «Parque Eólico Basalgo 28,00 MW y sus infraestructuras comunes de evacuación».

SEGUNDO: Solicitar que se emita una Declaración de Impacto Ambiental Desfavorable, y por tanto no se otorgue la Autorización Administrativa Previa a este Proyecto por lo comentado a lo largo del presente informe y en el documento anexo.

TERCERO: Solicitar que se considere al Ayuntamiento de Bergara parte interesada a los efectos de la resolución administrativa referida al proyecto mencionado en este asunto.

CUARTO: Solicitar que ejercitando el Derecho de acceso a la información en materia de Medio Ambiente, según lo previsto en la normativa vigente, tengan a bien enviar al Ayuntamiento de Bergara como parte interesada una copia de todos los nuevos documentos e informes, así como de las alegaciones recibidas, que puedan incorporarse después de la presente fase de información pública.

QUINTO: Notificar la presente resolución (acompañando el aprobado informe de la arquitecta municipal jefa del servicio de urbanismo y medio ambiente -con sus correspondientes anejos- a la Delegación Territorial de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad de Gipuzkoa.

Bergara, 19 de diciembre de 2025

EL SECRETARIO

1 Caso de que existiera disconformidad en la redacción de la resolución en euskera y castellano, la versión válida sería la de euskera.

